

## Hitzarmen kolektiboak

Milaka euskal langile, bereziki metal arlokoak, hitzarmen kolektiborik gabe daude 2003az geroztik. EAEn metalaren arloan aritzen diren 165.000 langiletik %44, hau da 72.375 behargin, 50 langile bitartean dituzten enpresa txiki eta ertainetan aritzen dira. Prohibitza mailako erregulazio ezaren aurrean talderik ahulena da honenbestez eta kontuak hartu duen trazari erreparatuta litekeena da zenbait hitzarmen sinatu aurretik beste urtebete ere pasatzea. Iragan astean egoera larri horren adierazle diren hainbat gertakari jazo zen eta metalaren sektorea egoera horrek eragiten dion eremu bakarra ez dela baieztatzen du. Esaterako, Bizkaiko merkataritzak, merkealdiekin bat etorritik, sindikatuak deituriko hiru grebetako azkenean hartu zuen parte. Bizkaiko Metalaren patronalak hitzarmenaren negoziaketak eten zituen. Arabakoak, berriz, lanaldia urteko zortzi orduz luzatzea negoziatu ezina dela dio eta horrenbestez negoziaketak bideraezina dirudi. Gipuzkoako patronalak modu iragankorrean negoziaketak bertan behera utzi zituen sindikatuarekin alde biko harremanetako bilerak hasteko. Eraikuntza, Osasun eta Hezkuntza publikoari ere antzeko egoerak eragiten die. Alde bakoitzak bere arazoak mahaigaineratzen ditu. Testuinguru horretan, sindikatu bakoitza bere aldetik joateak eta patronalak alde biko negoziaketan bidez ezarri nahi duen zatiketa sindikala onartzeak inolaz ere ez dirudi serioa ezta eraginkorra ere. Sindikatuak hobeto eta modu eraginkorragoan lan egin behar lukete langile guztien eskubideen alde eta bazter batera utzi interes sindikalak. Eta, noski, patronalaren zatiketa saiakera guztiak baztertu.

Juan Mari Arregi

## Aurki tituludunak erabiltzaileak baino gehiago

**ARMANDO LLAMOSASEK**

Jaurlaritzako iragarki-oholetan idazki bat paratu du eta Tiraka-koek ([www.tiraka.net](http://www.tiraka.net)) web gunean jarri dute. Llamosas hizkuntz eskakizun baterako ikasten ari da euskaltegian eta euskalduntze prozesua oso bide okerretik bidali izanaz kezka da. Ikasgelako panorama deskribatu du: "Azken txanpa honetan klaseak bitxiak dira. Jendeak azterketa ez pasatu heinean klaseak utzi ditu, honela, lau ikaskide gaude klasean,

oraindik azterketak prestatzeko ditugunok, azterketa ez gaituzteketan, zertarako joan? Esan liteke ikaskide horiek euskalduntzeko gogorik ez dutela. Hala ere, azterketak gaituzteko ahalgin handia eskatzen diete eta ateratzea lortuko dute, ziur nago titulua lortuko dutela, erabiliko dutela ordea, beste kontua da, helburua azterketa gaituzteza baita".

Euskaltegiko irakasle bati entzun zion esaten berehala, tituludun kopurua, euskaldunak baino handiagoa izango dela. Eta Llamosas antzeman duenez ingurukoek ere arazoia ematen diote irakasle horri.

## BAHEA

Uri Ruiz EHUko Hizkuntzen Didaktikako irakasleak Berrian esanak: "Ez nago 4 urterekin hirugarren hizkuntzarekin hasiarekin ados. Hizkuntza bat ikasteak denbora eta lan intelektuala eskatzen ditu, buruak okupatuta egon behar du hizkuntzarekin, hausnarketa egin behar du. Hirugarren hizkuntzak ere denbora hori behar du, eta ume batek bi hizkuntza berri ikasteko lana duenean, nahikoa da".

Robert Scarciak gipuzkoaeuskara.net-en esanak: "INSLECOk (Boliviako Hizkuntza eta Kultura Autoktonoen Institutuak), 'Boliviako hizkuntza eta kultura aborigenetan espezializatuak diren arduradun teknikarien' formatzeko programa bat sortu du. (...) Diploma ez da bakarrik kitxuan oinarrituko, baita aimara eta guarani hizkuntzetan ere. 80 eta 120 bat ikaslerentzat irekia izanen den formazio berria egun hauetan hasiko da, (...) eta urtero 40 bat ikasle diplomatu aterako dira (...)".

**Jantziak, osagarriak...**

**istilu**

615 73 21 12

Deitu eta katalogoa eskatu !!!

[www.istilu.com](http://www.istilu.com)

## Erraustegia eta azpiegituren dantza

**LURRALDEETAKO** gobernuak ere osatzen doaz apurka, Bizkaia eta Gipuzkoa izan dira lehenak eta Nafarroak eta Arabak hilaren bukaera aldera arte itxaron beharko dute. Arabakoa izango da seguruenik azkena, hilaren 26an egingo baita diputatu nagusia hautatzeko osoko bilkura. Jose Luis Bilbaok eta Markel Olanok aginte makila baino gehiago astindu beharko dute elkarrizketarena, eta bereziki gipuzkoarrak.

Olanok erakutsi du bere alderdian izan duela elkarrizketarako joera, barne mailan, komunikabideetan eta baita gizarte eragileekin ere. Orain gobernuan erakutsi beharko du jarrera horretan nola moldatzen den. Maila askotako erronkak izango ditu, baina esanguratsuenetakoak azpiegitura handiak izango dira. Zubietako erraustegiarenak jarraitzen du protagonismo nagusiarekin. Mankomunitateen esku utzi du gaia Olanok eta azken udal hauteskundeen ondoren, posible da udalak ordezkatzan dituzten erakunde hauek erraustegiaren aurkako jarrera izatea. San Markosekoan bederen hori da seguruenik gertatuko dena, eta hau da Zubietakoaren erantzule eta Gipuzkoako handiena.

Miguel Buen buruzagi sozialistak laster ekin dio Olano egurtzeari, erraustegia mankomunitateen esku uztea atzerakada handia litzatekeela adieraziz, eta kasurik onenean erreferenduma proposatu du bere alderdiaren jarrera berria erakutsiz. Biak ala biak lirarteke balekoak eta duinak, eta Buenen proposamenak balioko luke oposizio maila handia duten beste proiektu erraldoi batzuetarako ere, esate baterako Abiadura Handiko Trenerako.



Markel Olanok iragarri duenez, erraustegiaren gaian mankomunitateek erabakitzen dutena errespetatuko du.

Erraustegiarekiko Olanoren hitzak ez dira seguruenik bere gustukoak ere, baina boterea eskuratzek legealdi honetan duen salneurriaren erakusle dira. Ez dira ere *El Diario Vasco*-ren gustukoak, Olano bera ere gustukoa ez den bezala. Iragan igandean egingako elkarrizketa nahiko erasokorrean –politikan zilegi, ohiko eta beharrezkoak– bere agintaldiari buruzko galdera ia iraingarria egin zion Fernando Segura kazetariak lotsa handirik gabe: “Mugimendurako tarterik izango duzu edo GBBk esaten dizuna egitera mugatuko zara?”. Ezagun da Gipuzkoako egunkari garrantzitsuenak ez dituela begiko ez Olano, ez GBBn gaur egun agintzen dutenak.

Hauteskunde hauek joko politikoa zabalduko zutela antzeman zen hauteskundeen biharamunean eta lehenbiziko aztarnak antzematen ari dira jada.

**ARABAKOIA** are eta korapilatsuagoa aurreikusten da. PPK PSE-EEko Txarli Prieto jartzearen aldeko jarrera publiko agertu du; beste kontua da sozialistek amuari beste lau urterako kosk egingo dioten. Alternatiba EAJrekin jardutea da, baina nor diputatu nagusi, Xabier Agirre jeltzalea ala Prieto?

Hirukoa adierazi baino indartsuago dagoela erakutsiko luke 18 eserleku –PPk 15 ditu, PSE-EEK 14– lortuko lituzkeen EAJ-EA-EB-Aralarren akordioak. ANVren 4 botoak ez dira erabakigarriak oraingoan, baina gobernagarritasunerako esanguratsuak bai. PPK PSOE astindu duenarekin, Araban berriz popularrerekin errepikatzea ez litzateke ulerterraza, are gutxiago Espainiako hauteskundeen kanpainaurrearen hasieran. Baina...

**NAFARROAN** ere ez litzateke aise ulertuko PSNk Gobernu UPNren esku uztea. Are gutxiago, Jose Luis Rodriguez Zapaterok NaBairi buruz Kongresuan esan zituenekin, baina ate guztiak zabalik dira oraindik. PSNk argi utzi du soka bukaeraraino oso gogor tenkatuko duela eta NaBaik ikusi beharko du noraino eusteko gai den. Gobernuaren tentazioa handia da eta herritarrek eskatu duten aldaketarako ezinbestekoa, baina ez edozein preziotan, eta gobernu osaketari dagokionez, dagoeneko NaBai atzera egiteko maniobra margen gutxiarekin geratu da. Bestela esanda, bere boto emaleek nekez ulertuko lukete hauteskundeen emaitzen ordezkaritza errespetatuko ez lukeen sailburuen banaketarik. NaBain jende askok pentsatzen du hortik beheragoko posizioak onartzea baino interesgarriagoa litzatekeela oposizioan sendotzen jarraitzea eta PSN berak sortutako egoeran usteltzen uztea. Zeren eta, sozialistek azkenean gobernu UPNren eskutan utziko balute, PSN barne zatiketa berri batetik oso gertu logoke.